

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2818

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 9koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: «Ebazpena, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Horren bidez, langabeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, 2020-2022 urteetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak ikusi dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2020ko ekainaren 24ko Ebazpenean, zeinaren bidez argitaratzen baita langabeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia, 2020-2022 urteetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. Ebazpena 2020ko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 127. zenbakian. Eta jarraian zuzendu egiten dira hutsak:

– 2020/2556 (68/39) orrialdean, II. eranskinaren b.2.1 atalean, prestakuntza-espezialitate baten kodea zuzendu da; hortaz, honela dio:

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Balorazioa	Modalitatea
POS	FCOV0001OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurretiko kompetentziak:	0	150	1,34	36	Presentziala

Baina hau esan behar du:

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Balorazioa	Modalitatea
POS	FCOV0005OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurretiko kompetentziak	0	150	1,34	36	Presentziala

– 2020/2556 (68/39) orrialdean, II. eranskinaren b.2.1 atalean, ez da prestakuntza-espezialitate bat aipatu, eta jarraian erantsi da:

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Balorazioa	Modalitatea
POS	FCOO0001OV	Lan-ingurunera bideratutako konpetentzia soziopertsonalak	0	140	1,34	36	Presentziala

– 2020/2556 (68/59) eta 2020/2556 (68/60) orrialdeetan, III. eranskinean, C.4 irizpidean egin-dako zenbait akats zuzendu dira eta, argiago gera dadin, osorik ordeztu da, honela idatzita:

C.4	Lanbide Hezibi 2015-2019 deialdietan, 2017 eta 2018ko proiektu berezien deialdietan eta kualifikazio apaleko gazteentzako 2018ko deialdietan parte hartu duten pertsonen kopurua. Kontratatzeko konpromisodun prestakuntza-ekintzetan kontratatu dituzten pertsonen kopurua (2018). 2019-2020 ikasturtean, Hezkuntza Sailarekin, Lanbide Heziketa egiten ari diren ikasleak.		25 puntu
C.4.1	Profesionaltasun-ziurtagiriak eraldatuta 2015 eta 2019 artean HEZIBI proiektuetan parte hartu duten pertsonen kopurua		5 puntu
	1-2 pertsona	1	
	3-4 pertsona	2	
	5-6 pertsona	3	
	7-8 pertsona	4	
	9 pertsona edo gehiago	5	
C.4.2	2017 eta 2018 urteetako proiektu berezien deialdietan parte hartu duten pertsonen kopurua		5 puntu
	1-50 pertsona	1	
	51-150 pertsona	2	
	151-300 pertsona	3	
	301-500 pertsona	4	
	501 pertsonatik gora	5	
C.4.3	Kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako 2018ko deialdietan parte hartu duten pertsonen kopurua		5 puntu
	30 pertsona arte	1	
	31-60 pertsona	2	
	61-90 pertsona	3	
	91-120 pertsona	4	
	121 pertsonatik gora	5	
C.4.4	2018ko deialdian, kontratatze konpromisodun prestakuntza-ekintzen ondorioz kontratatutako pertsonen kopurua		5 puntu
	5 pertsona arte	1	
	6-10 pertsona	2	
	11-15 pertsona	3	
	16-20 pertsona	4	
	21 pertsonatik gora	5	

C.4	Lanbide Hezibi 2015-2019 deialdietan, 2017 eta 2018ko proiektu berezien deialdietan eta kualifikazio apaleko gazteentzako 2018ko deialdietan parte hartu duten pertsonen kopurua. Kontratazeko konpromisodun prestakuntza-ekintzetan kontratatu dituzten pertsonen kopurua (2018). 2019-2020 ikasturtean, Hezkuntza Sailarekin, Lanbide Heziketa egiten ari diren ikasleak.		25 puntu
C.4.5	2019-2020 ikasturtean, Hezkuntza Sailarekin Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa egiten ari diren ikasleak		5 puntu
	1-100 ikasle	1	
	101-300 ikasle	2	
	301-600 ikasle	3	
	601-900 ikasle	4	
	901 ikasletik gora	5	

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 9a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.